

BALIO PROPOSAMENA

Gure balio proposamena APP bat sortzea da, umeen aho osasuna bermatuko duguna. Bakoitzak perfil bat izango du "avatar" modura eta bertan hortzak nola garbitzen dituzten ikusiko dute, gero beraiek beraien ahoan praktikara eramateko. Adinaren arabera "avatar" horien itxura ezberdina izango da, eta osatzeko aukerak anitzagoak izango dira.

Jokoak izango ditu premio gisa, hortzak ondo garbitzen dituztela egiaztatu eta gero. Jokoak hortzekin zerikusia izango du, gutxienez hasiera batean, gero hori aldatzeko aukera izango dugu, etengabe berituko bai dugula APP-a.

"Avatar"-arekin gertatzen den bezala, jokoak adin ezberdinetara egokituta egongo da. Adibidez, 2-3 urteko umeak puzzle moduko jokoa izango dute, 6-8 tartekoak aho bat osatzea, eta 8-12ko tartean galdetegiak. Gurasoak erabakiko dute noiz bermatu joko hauen erabilpena.

Gure proposamen hau ondo atera daitekeela uste dugu, merkatuan oraindik ez baitago horrelako aplikaziorik, eta eraginkorra izan daitekeela pentsatzen dugu.

